



1. "Etxean kontu-kantari"

Atal honen asmoa da gurasoak egitasmoan parte hartzaile eraginkor bihurtzea. Horrela, haurrek eskolan lantzen dituzten hainbat jolas eta kantu etxean erabiltzea proposatzen dizuegu. Oinarrizko balibideak etxe guztietan sartzen ari diren *Bularreik Mintzora* eta *Sasi Guztien Gaietik* liburuetan aurki ditzakezue helduok. Bi liburu hauek ez dira haurrek bere horretan entzuteko eginak. Kaleratu genituenen, hain zuzen, asmoa oso zehatza zen: helduek euskal tradiziozko hitz-jolas, kantu eta ipuinak ikasteko erreztasunak eskaintzea, inguruko haurrei ahoz transmititu ahal izateko. Horrela, **bm buletinera** adibideak ekarriko ditugu, etxean ere tradiziozko jolas eta kantu hauek lantzeko.

Fitxa moduan aurkeztuko dira, pieza bakoitzari "erabilera aholku" batzuk erantsiko dizkiogularik. Hemen lehenengo adibideak: [Etxean kontu-kantari](#)

2. "Ipuinez ipuin"

Tradiziozko ipuin gutxi ezagutzen ditugu haur txikientzat. Gainera, askotan, auzitan jartzen dugu erabiltzen ditugun eredu askoren egokitasuna: emakume eta gizonezkoen rola, sexu inimiziazioa adierazten duten ipuinen erabilpena, hainbat ipuinek erakusten duten moral ikuspegia... Izan ere, guregana oso modu xelebrean heldu zaizkigu ipuin horietako asko eta asko; irakaspen intentzioa lauso, eta haien jatorrizko funtzioa erabat galdurik. Gure asmoa da haur txikientzat ipuin egokiak, dibertigarriak eta ereduagarriak ekartzea. Horretarako, gure tradizioari bezala beste herrialdeetako tradizioei begiratu diegu, eta, txikiek gozatzeko, moldatu egingo ditugu hainbat ipuin.

[Abrite portas, klis klas!](#)

3. "Gela barnean"

Atal honetan, iaizko buletinean egindako proposamenei helduko diegu hasiera batean. Badakigu proposamen hauek oraindik ez direla gehiegi erabili gela barnean, eta, berriz ere, liburuak kokatuz eta Udal Liburutegitik eskolara ekartzeko aukera berretsita proposamen zahar-berrieekin gatoz. Ale honetan klasiko entzutetsu batzuk gogora ekarriko ditugu: liburutegira joan, liburuak maileguan hartu, irakurri, gozatu eta haien mamiaz ase.

[Sendak, Maurice. *Piztiak bizj diren lekuan*. Kalandraka, 2000](#)

[Lionni, Leo. *Frederick*. Kalandraka, 2004](#)

[Hutchins, Pat. *Loreren ibilaldia*. Pamiela-Kalandraka, 2011](#)

4. "Egitasmoa martxan"

Dagoeneko herriz herriko martxari heldu diogu. Irailean jardunaldiak egin dira egitasmoan bi urte baino gehiago parte hartzen ari diren herrietako irakasleekin. Horiek geletako egitaraua martxan dute dagoeneko, eta, aurten, saioak sakontzeari ekingo diote.

Abusu-LaPeña eta Errenteriako irakasleei banatu zaie lehen hiruhilekorako egitarauaren proposamena, gelarako saioak sortu, eta jolasak gustura ikasi eta erabiltzeko. Aretxabaletan hasi gara lanean, irakasleen prestakuntza trinkoa abian jarrita, eta Errenteriako Oorereta Ikastolarekin plangintza berezi bati eman diogu hasiera.

Egitasmoa handi bilakatu zaigu: erakusgai [datu](#) batzuk.